

# B

BARREN

## “Duintasun eta askatasun egarriz bizi dira herrialde arabiarrek”

Ali Mohamed egiptoarra

TOKIKOM





EIBARKO HIZKUNTZA  
ESKOLA OFIZIALA  
Jardineteta, 3 - 20600 Eibar

2010/2011

MATRIKULA LIBREA Otsailaren 11tik martxoaren 4ra

HIZKUNTZAK: **ALEMANA,**  
**EUSKARA,**  
**FRANTSESA**  
**ETA INGELESA**

Matrikula egin nahi dutenek Internetez bakarrik egin ahal izango dute  
[www.eoieuskadi.net](http://www.eoieuskadi.net) orrian.

Argibide gehiago: [www.eoieibarheo.net](http://www.eoieibarheo.net) orrian edo  
943 200 618 telefonoan.

# INAUTERJAK 2011 (16 URTEK BURRERÄ)

23:00 ANIMAZIOA  
00:30 MOZORRO LEHIJAKETA  
01:30 SARI BANAKETA ETA  
ONDOREN MUSIKA

Sariak:

TALDEKOAK:  
1-Saria: 275€  
2-Saria: 175€

BANAKAKOAK: 125€  
(1 EDO 2 PERTSONA)  
KOREOGRAFIA  
ONENA: 125€



Banaketa sistema hobetzeko helburuarekin,  
**BARREN** jasotzen duzuenon buzoietan pegatina txiki bat jarri dugu  
Ez baduzue pegatina jartzerik nahi, esaiguzue lasai (943 744 112). Eskerrik asko!

**BARREN**eko banaketa sistema  
errazteko behar-beharrezkoa  
dugu zuen buzoiak  
pegatinarekin markatzea.

Mesedez, ez ezazue  
pegatina kendu buzoitik.  
Gure banatzaileek  
eskertuko dute.



## Bisitarik ezian...

Aupa, Juan Mari. Gabonak aurretik elkar ikusi gendun azkeneko aldiz, baiña oiñ, sei hillabeteko bisitaldi epia beteta, gutun bidezko elkarrizketa honetara bueltatu biharrion gara. Lugora egindako joan etorrixetan ikusi ahal izan dot espainiar estatuaren izaera miserabilia. Euskal preso politikuek eta zuen senidiek erakusten dozuen jarrerak, elkartasuna suntsitzeko ahalegin guztien gaiñetik, berau biderkatzia baiño ez dakar ordia. Besarkada bat, beraz, danori, eta, batez ere, gaztienari (gutun bat zor dizut, Ainara!).

Kartzelako bisitetan, bizi dogun momentuari buruz hitz egin dogu, ezker abertzaliaren apustuaz eta irabazteko dogunaz batez ere. Azken hillabete hónetan ekimenak biderkatu egin dira, eta, badirudi, hauteskundiak bittarte, zurrunbillo ero batian murgilduko garala. Gure apustuak, ordia, hauteskundietatik haratagoko ibilbidia dauka, eta komeni da behintzat perspektiba hori ez galtzia.

Legeztatziaren alde zapatuan Bilbon egin zan manifestaziuan ikusi zan berdintasunian parte hartzeko eskubiderik ez izatia ez dala ezker abertzaliaren arazua bakarrik, jendarte osuarena baiño. Ezker abertzalia pausuak ematen ari da etengabe, baiña gatazka gaindituko dauan egoerara iristia jendarte zabalaren lanetik bakarrik etorriko da. Jendia mugitzen ari da, eta girua zer esanik ez.

Egoera berrixian bat baiño gehixago ipurdi bistan dabil azkenaldixan. Badirudi EAJ eta Aralarreko zuzendaritzak

erosuago zaudela gatazka egoera amaigabian. Antza, kontuak ez jakuez ateratzen ongi...

Bizi dogun krisixan, lana falta dala dionik bada (dirua falta da, edo hobeto banatzia...), guk badaukagu pilla edarra. Herriko diagnostikua osatu dogu, eta orain herri programia osatzen hasitta gaude, zerrendak eta abarrak. Gemikako Akordia jendarteratzen ere ari gara, HAPOari buruz zer esplikatuko dizut... eta ondo dakizun bezela, beste hamaika saltsatan ere bagabiz. Zapatuan, urtero legez, Barrikotia izango dogu. Datorkigun erronkei erantzuteko ez da gasoliña txarra sagardo "pixka" bat.

Segi bizkor!



Iñaki Bengoetxea

"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan: 943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**“Ezker abertzalia pausuak ematen ari da etengabe, baiña gatazka gaindituko dauan egoerara iristia jendarte zabalaren lanetik etorriko da”**

ESKERTZA

## ROMANA BADIOLA SALEGI



*Joan zaren arren, ez da gertatu  
gure arteko etena  
ama-amama, zuri eskerrak  
gara gu denok garena  
eman zenigun izen-abizen*

*baita ere gure izana  
izango gara zure izaerak  
utzitako jarraipena  
ozen diogu izan zarela  
maitakor eta zuzena*

2011ko otsailaren 18an hil zen, 86 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



# Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARRE**Nek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**Nek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi  
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,  
Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA  
Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio  
MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz MAKETAREN  
DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK  
Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres  
Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola,  
Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai  
Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva  
Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari  
Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez,  
Maialen Arnedo. INPRIMATEGIA Gertu Koop.  
E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-  
1.038/92 ISSN 1139-1855

## Argitaratzailea:



## Laguntzaileak:



EL GOIBARNO UDLA



MENDAKO UDLA



ANE ANE KI



## GUTUNAK



BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Hau ez da serioa, Alfredo!

Ez dugu ongi ikusten datuak zure interesen arabera manipulatzeko:

1. Estatistikek diote Gipuzkoak biztanleak galduko dituela. Zuen aurrikuspenetan Eibartik etorriko dira, akaso? Beste Eibar bat egin nahi?

2. Egingo diren etxeen erdiak baino gehiago babes ofizialekoak izango direla esateari elektoralismoa deritzogu. Etxebideren azken zozketan 253 espediente besterik ez ziren sartu, eta lan prekarioekin, gazteek ez daukate ezta babes ofizialeko etxeak erosteko ere! Alokairuzkoak egitea proposatzen dugu.

3. Finantza krisiaren erdian, lau urtean etxe hutsak 639 izatetik 253 edo 257 izatera pasa al dira benetan? Etxe hutsen kontua bukatuko duen legea behar da: jabearentzat alokairua bermatuko duena, alokatzen duenarentzako prezio duina bermatuko duena, eta etxea hutsik duenari zerga handiagoak ezarriko diona.

4. Finantza krisira eraman gaituzten errezekin oraindik? Hipotekak albo batera laga eta alternatibak bilatu behar direlakoan gaude. Bigarren eskuko prezioek hondo joko dute: negozioa promotorentzat eta bankuentzat, eta zuloa etxe zaharren jabeentzat. Etxe zaharrak eraberritzea proposatzen dugu.

5. Lerun txiki presaka eta korrika bota zenuen. Non daude orain presa horiek?

Ongizatea eta osasuna ardatz hartzea exigitzen dugu. Elgoibar osasuna galtzen ari da. Gai hauek guztiak hobeto aztertzeko ikerketak du orain lehentasuna gure ustez, egin diren beste azterketa batzuren aurretik.

Gaur egun Elgoibar jasangaitza bada, itzultzeko aukera gabe are jasangaitzago bihurtuko dugu ideia horiekin; zenbat lur eta baliabide natural behar dugu jasangarritasun hori lortzeko? Norren interesak defendatzen ditu alkate honek, herritarren ala promotore eta bankuenak?.

**Okil Beltzak** ☞

## ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENeN edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferenziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.



Iñigo  
Lazkano

I e p a ,  
Don Angel.

Esan  
biharra  
daukat nik  
eskoletan  
ematen dan filo-  
sofia klasikuaz ez  
dakatela arrastorik ere  
ez. Nere "gazte" denboran, ka-  
tuak txakurraregandik bezela ihes

egin naban filosofia eta matematiketatik... eta oiñ danak etorri ja-  
tiz kontuak eskatzera! Espero naban matematikak berriz ere nere bi-  
zitzan bistatzia, ingeniartzia ikasten hasi nitzalako irailian, baiña Platon,  
Aristoteles eta konpaitiari adarra edarki jo niuelakuan nenguan, ez nabala-  
ko euren erretrato bat bera ere ikusi nere batxilergo denboran. Ba hara  
nun, kuadrilla honen ipuiñekin etorri zitzakun oiñ dala bi aste epistemolo-  
giako maisua. Nik epistemologia izenak zer esan nahi zaban ere ez naki-  
xan, baiña pinta onik ez nion hartu. Arbelian ipini zaban lehenengo hitzak,  
gaiñera, ondiok eta gehixago despistau nindduan: Sócrates. Joño! Futbo-  
laz hitz egin bihar ete juau ba? Baiña ez, aintziñako filosofo griego bat  
omen zan Socrates, eta famaua gaiñera.

**“Espero naban matematikak berriz ere bistatzia,  
baiña Platon eta konpaitiaria...”**

Batxilergo denboratik 11 urte pasau diranian, ez jata hain aspergarrixa  
iruditzen ikasgai hau, eta ez ditt halako atzerakadarik ematen, baiña ez diot  
zentzurik hartzen oiñ dala 3.000 urte golperik jo ez zebeu iluminau batzuek  
esandakuak ikasten egotiarri. Ipuin bezela gustokuak dittut, baiña hortik in-  
geniero izateko hau ikasten egotia... Hor lagatzen dizut desafiua. Emaida-  
zu arrazoi bat ikasgai hau aurrera ateratzen saiatu nadin, bestela helburu-  
rik gabe geratuko naiz, eta zuloa jungo naizen bilddurra dakat eta. 1.500  
karaktere dakazuz horretako, *jejeje*.



Anjel  
Bazterretxea

Espero ez naban gaixa atera dezu mahai  
gaiñera gaurkuan. Sokrates eta Platon filoso-  
fo haundixak ekarri dittuzu gure solasera. As-  
paldiko bi filosofo haundi. Sokrates Platonen  
maisua, eta Platon haren ikasle sutsua. Badaki-  
zu Sokratesek ez zebala ezer idatzi? Platon eta  
beste ikasleek idatzi zebeu Sokrates maisuak ira-  
ksten ziena. Ibillian, hainbat gairi buruz jarduten  
zien Sokratesek bere ikasleiei. Ikaslien galderei beste  
galdera batzuekin erantzuten zien Sokratesek. Hala,  
ikasleiek arrazoitzen ikasten zebeu. Platonek, berriz, asko ida-  
tzi zuan, sentimenen bidez hautematen degun mundu fisikuaren  
gaiñetik, ideien eta formen mundua dagoela esanaz. Horregaittik as-  
kotan entzun izan degu maitasuna ere izan daitekeela platonikua.  
Hau da: maitatu maitte dedan hori ideala balitz bezela.

**“Ziur nago Platonek, Aristotelesekin eta  
gaiñerakuekin emango dizutela argia”**

Bueno, Iñigo, orain ez gera hemen Sokratesen eta Platonen  
bideak guztiz urratzen hasiko. Hortarako, filosofia gehixago ikasi  
biharko da, eta, bihar bada, konturatuko zera ez dala asko alda-  
tu filosofia Aristoteles eta Platonen denboratik gaurdaño. Kome-  
niko litzake Sokratesek bere ikasleiei egitten ziena egittia gaur ere.  
Hau da, gauzak esatian egiaz eta arrazoiz esatia. Zuzen eta sa-  
kon. Eta Platonen espiritu hori ez dadilla falta gure artian; idealis-  
mo errealista bat ekarri daigun gure bizitzara. Egunerokuan sartu,  
baiña ahaztu gabe ez gerala arrazionalak bakarrik. Amets eta ilu-  
sioak ere hor daudela bizitza gustukua egin ahal izateko. Ez dakit  
zer ikasi behar dezun, baiña ziur nago Sokratesek, Platonek, Aris-  
totelesekin eta historian izan diran beste jakintsuekin emango dizute-  
la bizitarako argia. Gero arte.



ESKERTZA

**MARIA BELEN HERVIAS COMPAÑON**

2011ko otsailaren 17an hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



# Ataungo ereduari jarraituz, Elgoibarko Udalak ibilgailu elektrikoak jarriko ditu herritarren eskura

Ubitarten jarri dituzte dagoeneko ibilgailu elektrikoentzako korronte hartuneak

**A**taungo ereduari jarraituz, Elgoibarko Udalak hainbat ibilgailu elektriko jarriko ditu partikularrek eta enpresek erabili ahal izateko. Modu horretan, hiri mugikortasuneko laborategi bihurtu nahi dute Elgoibar Gipuzkoako Foru Aldundiak, Jaurilaritzak eta Udalak. Proiektu honek 700.000 euroko inbertsioa eskatzen du guztira, eta Aldundiak 300.000 euro jarriko ditu. (100.000 euro Krisiaren Aurkako Planetik).

Foru Aldundiko iturriek jakinarazitakoaren arabera, proiektu hori "jauzi kuantitatibo handia" izango da garraio energetikoko sistema bat jartzeko. Hiru lan lerro garatu nahi dituzte: garraio partekatuaren sistema ezartzea, partikularrentzako autoak, motoak eta bizikletak eskainita; enpresetan auto elektrikoen erabilera sustatzea; eta salgaiak garraiatzeko sistema bat ezartzea herrigunearan. Martxoan aurkeztuko dute egitasmoa, eta udaberriko martxan izatea nahiko lukete proiektuaren sustatzaileek.

Ibilgailu elektrikoak dagoeneko eskatuta dituztela esan du Alfredo Etxeberria alkateak, eta, dagoeneko bost enpresak agertu dutela horiek erabiltzeko konpromisoa. Ibilgailuok kargatu ahal izateko korronte hartuneak ere egokitu dituzte, Ubitarten. Hantxe egongo da ibilgailu elektrikoentzako aparkalekua.



*Konoen azpian daude korronte hartuneak.*

## 2020ra bitarteko lan plana diseinatzen dihardu Mekak



Meka institutuak datozen urteetan hartu beharreko bidea diseinatzen dihardu erakunde, enpresa, sindikatu, elkarte, ikasle eta ikasle ohiekin elkarlanean. Debegesako teknikarien laguntza ere jasoko dute plana garatu ahal izateko. Hilaren 14an batu zen lehenengoz talde eragilea: Alfredo Etxeberria herriko alkatea, Lanbide Heziketako Kontseilariordetza, Anautesk, Danobatgroup, Lanbide eta Mekako irakasleak eta zuzendaritzak, eta aurrera begirako lan egutegia zehaztu zuten.

## Gernikako Akordioan jasotakoa aurkeztuko dute Elgoibarren

Gernikako Akordioaren sinatzaileek ituna gizarteratzeko ekimenekin segitzen dute, eta gatazka politikoa gainditu eta Euskal Herrian prozesu demokratikoa abian jartzeko Gernikan adostu zuten gutxiengo demokratikoen agiria Elgoibarren aurkeztuko dute martxoaren 3an, 19:00etan, kultur etxeko hitzaldi gelan.

Ahalik eta atxikimendu zabalena jasotzen saiatzea eta jendeak akordioa bere egitea dira sozializazio kanpaina horren helburuak. Gernikako akordioaren aurkezpenean, akordioa izenpetu zuten taldeetako herriko ordezkariak eta itun hori babestu duten gizarte eta kultura eragileetako ordezkariak parte hartuko dute.

Bestalde, bihar, hilak 26, ekitaldi nazionala egingo da Donostiako Atano pilotalekuan, Gernikako akordioaren lehen faseari bukaera eman eta bigarren fasea aurkezteko. Hau da, gutxiengo demokratikoa adostetik gutxiengo horiek lortzera jauzi egiteko fasea aurkeztuko dute. Ekitaldia 17:30ean hasiko da, eta bertaratzeko autobusa antolatu dute Elgoibartik. King-Kong autobus geltokitik irtengo da, 16:30ean.

## Izena **Ovidio Campello**



Ovidio Campello izango da maiatzaren 22ko Udal Hauteskundeetarako PSE-EE alderdiaren alkategaia. Hauteskundeetarako programa zabala prestatzen ari direla ziurtatu zuen Campellok, eta herritarren partaidetzari garrantzia emango diotela gaineratu zuen. Herritar guztiak kontuan hartuz, Elgoibar “denon artean” eraikitzea da alderdi sozialistaren helburua. Eguazten eguerdian egin zuten aurkezpena alderdiaren egoitzan, eta Iñaki Arriola Gipuzkoako diputatuak ere hartu zuen parte ekitaldian.

## Irudia **Elgoibartik San Telmora**

Makina Erremintaren Museotik Donostiako San Telmo museora eraman dute tornu bat. 1920an eginiko tornu bat zaharberritu dute Elgoibarko Erreminta Makinaren Museon, eta San Telmo museoari lagako diote, han erakutsi dezaten. Motor elektrikorik gabeko makina bat da. Hau da, transmisioak poleen eta uhalen bitartez funtzionatzen du. Joan den mendeko 40. hamarkadara arte era honetako makinak ziren nagusi inguruko tallerretan. Aspaldi egin zieten lekua teknologia eta makina berriagoei, baina miragarria da antzinako makina horiek nola funtzionatzen duten ikustea, aukera horixe eskaintzen baitu, besteak beste, Makina Erremintaren Museoak.



## **Mendaroko ospitaleko itxaron zerrenda Osakidetzako luzeena da**

Azken urtebetean hiru egunetan luzatu da Mendaroko Ospitalean kirurgia operazio bat egiteko zain egon beharreko denbora, eta ondorioz, Osakidetzako itxaron zerrenda luzeena dauka. Debabarrenako Nagusien Kontseiluak zabalduko datuen arabera, Mendaroko Ospitalean 55,48 egun itxaro behar dira batez beste kirurgia operazio bat egin ahal izateko, eta Osakidetzaren batez bestekoa 48,20 egunekoa da. 2010eko azken lauhilekoan 583 lagun zeuden operazio baten zain Mendaroko Ospitalean.

Proba osagarriak egiteko, bestalde, 23 egunera ematen dute zita Mendaron (Osakidetzako batez besteko atzerapena 27 egunekoa da). Azkenik, kontsulta pasatzeko itxaron behar den egun kopuruak behera egin du, eta gaur egun hamabi egun itxaron behar da.

## **Bernardo Ezenarro kaleko igogailua hilabete bukaerarako amaituko dute**

Otsail bukaerarako erabiltzeko prest egongo da Osasun Zentroa eta San Roke auzoa lotuko dituen igogailua. Hogei lagunentzako lekua izango du, eta 7:00etatik 23:00etara egongo da martxan. Estatuak konbokatutako Tokian Tokiko Inbertsioen Fondo Estataleki esker gauzatu dute proiektua, eta 491.247 euroko kostua izan du.



# ALI MOHAMED (Egipto)

## “Pobreziak eta askatasun ezak eragin dute errebolta”



**Egiptoarra da sortzez Ali Mohamed 30 urteko gaztea, baina azkeneko zazpiak Elgoibarren egin ditu. Informatika ikasketak bukatu berriren etorri zen hona, bere herrialdean etorkizunik ikusten ez zuelako, eta, gaur egun, Eibarko lantegi batean lan egiten du, tornulari. Elgoibarren bizi da, baina Egipton du burua. Telebista eta Internet bidez jarraitu du Mubaraken kontrako errebolta, eta hura agintetik kenduta, gertuago ikusten du orain horrenbeste urtean amestutako “askatasuna”.**

### **Zer gertatzen ari da arabiar munduan?**

50 urtetik gora daramatzagu diktaduren menpe, inolako askatasunik gabe eta demokrazia egarri handiarekin, eta jendea nazkatu egin da. Herrialde aberatsa da gurea [Egipto], eta ondo prestatutako jendea ere badaukagu, baina esklabo moduan bizi izan gara, eskuak lotuta eta ahoak itxita. Poliziaren beldur bizi ginen, erregimenak ikarututa. Hona etorri aurretik egora gogorrek bizi izan ditut neuk ere. Tratu txarrak eta torturak eguneroko ogia ziren han, baina jendeak beldurra galdu du. Zer galdu ez izateak hori dakar. Muturreko pobrezian bizi denak beldurra ere galdu egiten du etorkizunik ez duela konturatzen denean, eta hala gertatu da Egipton eta baita inguruko beste herrialde arabiar batzuetan ere.

### **Egoera gogorrek bizi izan zenituela diozu. Zer egiten zitzaizun gogorren?**

Etorkizunik ez dagoela ikustea. Nik Informatika ikasi nuen, lau urteko karrera bat, baina banielen ikasketak amaitutakoan ez nuela lanik izango. Enpresa batean lanean hasteko ezinbestekoa da aitaponteko on bat izatea, edo atzetik babes handia izatea. Tortura ere eguneroko kontua zen han. Beldurrez bizi ginen. Nahikoa zen nortasun agiria etxean ahaztea hiru-lau egun kartzelan pasatzeko. Emergentsia Legea ere badaukagu Mubarak boterera iritsi zenetik, eta horren arabera, kalean ezin dira bost lagun baino gehiago elkartu. Edonon eta edonoiz atxilotu zaitzakete, baita zeure etxean ere, eta epailearen agindurik gabe, jakina.

### **Errebolta eragin duten arrazoien artean faktore ekonomikoak badira edo errebolta politikoa izan da guztiz?**

Ez, ez. Ez da errebolta politikoa izan. Muturreko egoerak behartu du iraultza. Pobreziak eta askatasun ezak eragin dute, hein handi batean, errebolta. Gazteek ez dute lanik, eta prezioek nabarmen egin dute gora azkeneko urteotan. Okela kilo batek hemen beste balio du han, eta ogia hemen baino garestiagoa da. Al-





## Nire herria Alejandria



diz, soldatak ehun eurotik beherakoak dira. Horrela ezin da bizi; biziraun, justu-justu. Hilean 40 edo 50 euro irabazten dutenak ere asko dira, eta aldiz, agintariek 10.000 eta 20.000 euro artean irabazten dituzte.

**Arabi mundua anitza da oso. Hala ere, Tunezen hasitako errebolta izan duen jarraipena ikusita, badirudi gehiago direla batzen zaituzteten ezaugarriak.**

Kultura bat gara, eta frantziarrek eta ingelesek okupatu aurretik, herrialde bakar bat ginen. Hizkuntzak eta odolak batzen gaitu, eta gainera, arazo bera daukagu guztiok: tiranoen menpe bizi garela. Tunezen jaiki zirenerako Egipton kokoteraino geunden, eta bistan denez Libian eta beste hainbat herrialdetan ere bai. Askatasuna eta duintasuna aspaldi galdu zen herrialde guzti horietan, eta askok eta askok eskubideak dituztenik ere ez dakite. Hemen duzuen pentasiazina da han. Libian, adibidez, pobrezia ez da Egipton bestekoa, baina askatasun egarri bera dute, 42 urte egin dituztelako diktadura gogor baten menpe. Duintasun eta askatasun egarri bizi dira herrialde arabiarretan, eta Tunezen eta Egipton gertatu denak adoretuta, kalera irten dira, azkeneraino borrokatzeko asmoz.

**Nola jarraitu duzu hemendik zure herrialdean gertatzen ari zena?**

Urduri, eta aldi berean, ilusio handiarekin. Al Jazeeraen bitartez zuzenean jarraitu dut errebolta, hasi zenetik ustez bukatu den arte, eta lorik egin gabeko gauak ere izan ditut, lehenengo egunetan telefono eta Internet bidezko konexio guztiak etenda izan zituztelako. Negar asko egin dut, batez ere hildako anaien gorpuak ikustean. Orduro sartzen nintzen Interneten, eta hango lagunekin eta

senideekin ere hitz egiten nuen. Han egon nahi nuen. Egipto libre izatearekin amets egiten nuen aspalditik, eta egun hori gertu ikusten nuen. Banekien halakoren batean Mubarakerekin lagako zuela, eta herriak irabaziko zuela, beldurra galtzen duenak sekula ez duela atzera egiten, lortu nahi duen hori lortu arte.

**Egipton bizi zinenean, Hosni Mubarakerekin batzuk zuela sumatzen zenuen?**

Ez. Bere inguruko odol zurrupatzaileek eta bihotz gabeek bakarrik babesten zuten, herritarren %5ek baino ez. Mubarak ez zuen herriak aukeratu, 50 urtean ez dugulako presidenterik aukeratu. 2005ean egin ziren hauteskundeak, eta Mubarakerekin botoen %90 baino gehiago lortu zituen. Nola liteke hori? Milaka eta milaka lagun irten dira bere kontra, eta nork sinistu behar ditu hauteskunde haiek emaitzak? Urtarrilaren lehenengo egunetan, atentatu bat izan zen Alejandrian kristauen eliza baten kontra. Errezoan zeuden kristauak, eta atentatu hori Mubarakerekin aldekoek egin zuten, kristauen eta musulmanen arteko harremanak gaiztotzeko, eta jendearen atentzioa desbideratzeko, bere semeak boterea hartzen zuenerako.

**Herrialde arabiarretan izan diren beste errebolta batzuen aldean, oraingo honek badu itxuraz berezitasun bat: errebolta hasi zutenak gazteak dira, eta askok sare sozialak erabiltzen dituzte. Internetek lagundu du?**

Bai. Mobilizatu ziren lehenengoak 20 eta 30 urte bitarteko gazteak izan ziren, eta gero batu zitzaizkien gainerako guztiak. Eta ez da harrizkoa, herritarren %30 eguneko bi dolarrekin bizi diren herrialde batean jendea nazka-nazka eginda dagoelako. Facebo-

ken *Denok gara Khaled Said* izeneko perfil bat sortu zuten gazteek, eta horixe izan zen urtarilaren 25ean errebolta piztu zuen txin-garra. Khaled Said, 28 urteko alejandriarra, hil arte torturatu zuen Poliziak. Internetez bideo bat zabaltzeagatik hil zuten. Bideo hartan, hainbat polizia agertzen ziren, droga saltzaile bati kendutako materiala euren artean banatzen. Khaled Said hil zuten, baina bizirik dirau gugan. Internetek eta telebistak indar handia izan dute, bai, baina facebook izan da garrantzitsuen, Egipton kalean bost lagun baino gehiago elkartzea debekatuta dagoenez, sare horren bidez antolatuta direlako mobilizazio guztiak. Otsailaren 11n kendu genduen Mubarak agintetik, baina urtarilaren 28tik garbi zegoen hala izango zela. Izan ere, egun horretan bera babesten zuten ia bi milioi militarren babesa galdu zuen, eta bakarrik gelditu zen. Armadarengan sinisterra eraman gintuen horrek.

**Anaia Musulmanak hartzen ari ziren indarra zela eta, kezka agertu zuten Mendebaldeko hainbat agintariek. Zer diozu horren inguruan?**

Musulmanak ez direla berez indarkeria zaleak, baina Anaia Musulmanek edo esan dezagun musulman erradikalek indarra hartu badute diktaduragatik izan dela. Jendeak itxaropena galduta dauka, eta erregimenak eskaintzen ez dien babes eta konfiantza apurra Anaia Musulmanek eskaintzen badie normala da haiengana gerturatzea. Muturreko egoeran bizi denak edozeri heltzen dio, urazalean mantenduko bada. Benetako demokrazia iristen den egunetan, baina, talde horiek berehala desagertuko dira.

**“Bere inguruko odol zurrupatzaileek eta bihotz gabeek bakarrik babesten zuten Hosni Mubarak”**



**Trantsizioan sinisten duzu?**

Ez, inondik inora. Batzuek Mubarak garaitu dugula pentsa-tuko dute, eta neurri batean, hala da, baina nik beti esaten dut lepoa kendu diogula baina haren gorputzak han jarraitzen duela. Beldur naiz ez ote duen Mubaraken erregime-nak jarraituko, baina beste aurpegi batekin. Egipton ikas-ketarik gabeko jende asko dago, eta horiek ez dute arris-kurik ikusten, baina ni neu beldur naiz. Ez dugu amore emango, hala ere. El Baradeirengan sinisten dut nik bakar-barrik, eta ezetz esan badu ere, ziur naiz herriak eskatzen badio aurkeztuko dela presidentetzara, pertsona ona dela-ko.

**Libiako manifestazioetan Obamari laguntza eske ikusi du-gu jendea. Estatu Batuegan sinisten duzu?**

Nik neuk, ez. Estatu Batuek diktaturak babestu dituzte beti, eta Israel da euren aliatu nagusia. Begira ezazu Isra-elek nola dituen palestinarrak. AEBek zerbait egin dute ge-nozidio horren kontra? eta Nazio Batuen Erakundeak? Ezer ez. AEBek ez dute nahi musulmanak boterera iriste-rik beldurra dietelako, eta horregatik babesten dituzte dik-taturak. Badakite musulmanek indarra hartzen badute Pa-lestina estatu izatea eskatuko dutela. Amerikarrak ez dira bakearen alde ari. Inoiz ez dute bakea babestu. Jendeak Obamarengan izan dezake konfiantza apur bat, baina AE-Betan inork ez du sinisten arabiar herrialdeetan. Nola sinis-tuko dugu bada! Egin dezatela benetako demokraziaren alde, eta ikusiko dute nola irabaziko duten musulmanen konfiantza.

**Mendebaldeak ezagutzen zaituzte?**

Gehienek ez. Gehienek beldurra digute, eta normala ere bada, besterik ez dietelako esaten hedabideetan. Gu ez gara jende txarra, ez dugu txarrik nahi inorentzako, eta el-karbiztan sinesten dugu. Egipton, esaterako, urteetan bi-zi izan gara musulmanak eta kristauak elkarrekin, eta se-kula ez da ezer pasatu. Kontua da Mendebaldean ez du-zuela halakorik bizi izan, oraintsu arte. Herrialde arabiarre-tan benetako demokrazia lortzen badugu, hala ere, jende-ak ikusiko du egiaz ari garela eta duintasuna baino ez du-gula eskatzen. Demokrazia lortzen badugu beste mundu bat ikusiko dute. Izan ere, pobrezia eramaten ditu asko erradikaltasunera, eta jendeak hori ulertu beharko luke.

Ainara Argoitia

Elgoibarko Udalak emandako datuen arabera, 11.435 biztanle ditu Elgoibarrek gaur egun. Horietatik 771 atzerritarrak dira (Espainiaz kanpokoak), eta talde horretan Marokoarrak eta Boliviarrak dira ugariena. Mendaron, bestalde, eta 2011. urteko urtarilaren 1eko datuen arabera, 1.929 lagun daude erroldatuta, eta horietatik 85 atzerritarrak dira. Atzerritarren artean, berriz, ia bostetik bat ekuadortarrak dira. Ekuadortarren ostean, senegaldarren eta marokoarren taldeak dira handienak.

**ATZERRITARRAK ELGOIBARREN**

Herrialdea	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira
Belgika	1	1	2
Frantzia	3	1	4
Grezia	1	0	1
Italia	3	6	9
Herbehereak	1	0	1
Portugal	43	27	70
Eremesa Batua	3	1	4
Alemania	2	0	2
Errumania	41	23	64
Ukraina	5	3	8
Errusia	4	2	6
Argelia	3	1	4
Egipto	2	0	2
Mali	1	0	1
Maroko	95	66	161
Senegal	21	6	27
Estatu Batuak	1	0	1
Mexiko	1	6	7
Kuba	2	9	11
El Salvador	2	2	4
Honduras	1	3	4
Nikaragua	6	26	32
Dominikar Errepublikak	4	12	16
Argentina	6	7	13
Bolivia	64	83	147
Brasil	7	14	21
Kolonia	11	16	27
Txile	3	1	4
Ekvador	17	15	32
Paraguai	2	0	2
Peru	3	1	4
Uruguai	2	1	3
Venezuela	5	3	8
Tsina	11	13	24
Pakistan	34	5	39
Guatemala	1	0	1
Kongo	3	2	5
Gambia	1	0	1
<b>GUZTIRA</b>	<b>412</b>	<b>359</b>	<b>771</b>

**ATZERRITARRAK MENDARON**

Herrialdea	Gizonezkoak	Emakumezkoak	GUZTIRA
Angola	2	1	3
Congo	2	0	2
Nigeria	0	1	1
Senegal	9	2	11
Argelia	1	0	1
Maroko	4	7	11
Pakistan	4	3	7
Ukraina	2	1	3
Bolivia	2	1	3
Brasil	3	5	8
Ekvador	6	9	15
Kolonia	0	1	1
Kuba	1	3	4
Paraguai	0	1	1
Honduras	0	1	1
Uruguai	0	1	1
Errumania	3	1	4
Portugal	2	0	2
Eslovakia	1	0	1
Italia	1	0	1
Polonia	0	2	2
Finlandia	1	1	2
<b>GUZTIRA</b>	<b>44</b>	<b>41</b>	<b>85</b>

## Erretratu zaharra



**1960**

Argazki hau 1960. urtean ateratakoa duzue, eta argazkikoak Gazteak futbol taldeko jokalaria dituzue. Egun horretan 2-0 irabazi zioten Soraluze taldeari, finalerdietan Ermuari irabazi ostean. Txapelketako partida guztiak irabazi zituzten denboraldi hartan, eta ez zuten gol bakar bat ere jaso. **Goiko lerroan:** Ignacio Mugertza, Armando Lasuen, Jose Antonio Iriondo, Gregorio Saiz, Alberto Solas, Nikolas Arrieta, eta Rafael Barrenetxea (delegatua) (†). **Makurtuta, ezkerretik eskumara:** Antonio Etxabe, Eduardo Martin (†), Jesus Mari Elizburu, Emilio Santos eta Jesus Ortueta (†).

IV. URTEURRENA

## RAMON UNTZILLA ARANBERRI



*Kaixo, Ramon  
ta memorian zure irria  
ta memorian zure begiak  
ta memorian zure keinua  
ta memorian zure izatea  
ta memorian bizi zaitugu  
ta memorian zure aiduru  
ta memorian zaitugu katigu  
ta memorian zaitugu*

*Etxekoak*

2007ko otsailaren 27an hil zen, 42 urte zituela. IV. urteurreneko meza zapatuan, otsailaren 26an, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



## Bertso bazkaria eta Arnoateko Igoera antolatu dituzte Mendaron, Aingeru Guardako jaien egitarauaren barruan

Andoni Egaña eta Iker Zubeldia jardungo dira bertsoan hilaren 6ko bazkarian

**B**ihar hasiko dituzte ofizialki Mendaroko Aingeru Guardako jaiak, baina, zalantzarik gabe, hurrengo zapatua eta domeka izango dira jaietako egun handiak. Izan ere, ohiko ekitaldiez gain, Arnoateko Igoera eta bertso bazkaria antolatu dituzte datorren astebukaerarako.

Zortzi bat urtean galdua egon ziren Aingeru Guardako jaiak, baina, iaz, herriko hamar gaztek [Plaza auzoan hazitako en ondorengoak guztiak] jaiak berreskuratzea erabaki zuten. Pentsatu eta egin. Egitarau apala antolatu zuten, euren ezagutu izan zituzten Aingeru Guardako jaietan izaten zenaren parekoa, baina argi laga zuten buruan ideia berriak ere bazituztela aurtengoari begira. Halaxe aitortu zuen Joseba Mendikute antolatzaileetako batek BARRENI egindako adierazpenetan: "Guk ezagutu ditugun jaien antzeko zerbaite antolatu nahi izan dugu. Lehenengo urtea izanda, apal hasi gara, baina honек jarraipena izango du. Dena ezin da lehenengo urtean egin, hobetzeko aukera izateko". Hitza bete dute.

### Lau eguneko jaiak

Bihar sartuko dute arbola (18:00), basiliza parean, eta kanpaiak joko dituzte ondoren, jaiak hasi direla iragartzeko. Martxoaren 1ean, berriz, Aingeru Guardako egunean, bi meza izango dira: 8:00etan eta 11:00etan. Hilaren 5ean, zapatuan, Arnoatera Igoera jokatu da. Lasterkariak Plaza auzoko tunelpetik irtengo dira, 11:30ean, eta Arnoatera bideko aldapa pikoetan neurtu beharko dituzte indarrak. Guztira, 4,5 kilometroko bidea osatu beharko dute, eta 500 metroko desnibela gainditu. Antolatzaileek denborak hartuko dituzte, eta Arnoatera lehenengo iristen diren hiru lagunek sari bana jasoko dute. Izen emateak irteerako puntuan bertan egingo dira, egunean bertan, 11:00etatik aurrera. Parte-hartzea debaldekoa izango da, eta antolatzaileek aurreratu dute Arnoate gainean hamaiketako goxoa izango dela gerturatzen diren guztientzako.

Biharamuna, hilaren 6a, izango da jaietako egun handia. 12:00etan meza izango da Aingeru Guardako basilizan, eta meza ostean, herri kirolen erakustaldia. Iazko antzeko saioa antolatu dute aurtengo ere, baina berrikuntza batzuk izango direla aurreratu dute, zeintzuk izango diren zehazteke. Jon Larrañaga eta Goizon Zulaika mendarorak arituko dira kaskara batzen, Ugaitz Mugertzak egingo du aizkoran eta Andoni Zubiaurre *Gorixok* eta Unai Sarubek trontzan. Egun horretan, gainera, jai batzordeak txosna ere jarriko du ermita ondoan. Aingeru Guardako amaitu ostean, Aizpe gastronomia elkartearen batuko dira, bertso bazkari-



tan. Andoni Egaña zarauzarrak eta Iker Zubeldia zegamarrak jardungo dute bertsoan, eta antolatzaileek iragarri dute postrearekin batera, sorpresa bat ere izango dela. Bertso bazkarira joan nahi duenak, tiketa erosi beharko du, otsailaren 27a aurretik (bihar). Bertso bazkarirako tiketak Ormola eta Leku-Ona tabernetan daude salgai, 25 eurotan.

## Lagun giroan ospatu zuten zapatuan Motxaila Eguna mendaroarren

Jende ugari batu zen zapatuan Mendaron, Motxaila Egunean ospakizunetan. 11:00ak aldera abiatu ziren hogei bat lagun Aitzbeltzko kobazulorantz, eta hantxe hasi zuten eguna, kantuan eta bertsoetan. Alain Ulaziak ipuin eta poema batzuk irakurri zituen, beste hiru lagunek kantu bat abestu zuten, eta Xeber Loiolak berso batzuk kantatu zituen hurrengo. Handik Gaztetxera jaitsi ziren, bazkaltzera

40 bat lagun inguru batu ziren bazkaritan, eta une hunkigarriak ere bizi izan ziren, besteak beste hainbat gaztek Jokin Urain euskal presoaren senideak omendu [Uraineek 25 urte bete ditu preso] zituztenean. Parte hartzaileetako batek Urainen inguruko idatzi bat irakurri zuen aurrena, eta ondoren, lore txorta bat oparitu zieten Kontxi eta Lourdesi, Jokin Urainen arrebetako biri. Omenaldi xume horren ostean kantuari eman zioten berriro, eta flamenkoaz gozatzeko aukera izan zuten bazkaritara bildu zirenek. Motxaila Bandek, herriko bost gaztek sortutako taldeak, itxi zuen Gaztetxeko saioa, eta bertso poteoa hasi zuten gero, denek elkarrekin. Fredi Paia, Jokin Uranga eta Beñat Lizaso bertsolariak jardun zuten kantuan, baina orduak aurrera egin ahala, izan zen bertsoetan ausartu zen mendaroarren ere tartean.



## Hiru metroko enborra ebakitzen saiatuko da 'Bihurri' esku bakarrarekin

Hiru metroko diametroan enborra esku bakarrarekin ebakitzen saiatuko da Ernesto Ezpeleta *Bihurri* aizkolaria, martxoan. Errekor asko eta askotarikoak ezarri ditu aizkolaria eibartarrak, baina oraingo hau bere buruari inoiz jarri dion erronkarik handiena dela aitortu du. "Enborrak esku bakarrarekin ebakitzea maratoia hanka bakarrean korritzearen parekoa da", adierazi du. Nolanahi ere, ez da lehenengo aldia esku bakarrarekin marka handiak ezartzen dituela. 2008an, 2,52 metroko perimetroan enborra ebaki zuen esku bakarrarekin, 22 minutu eta 21 segundotan. Enbor handiak ebakitzen ere abila da Bihurri. 2005ean, esate baterako, bost metroko diametroan enborra ebaki zuen, 3:07:48ko denboran, eta gaurdaino beste inork ez du marka hori ontzerik lortu. 4.797 aizkorakada behar izan zituen lan hura amaitzeko.

### Euskara ikasteko diru laguntzak emango ditu Mendaroko Udalak

Euskaltegietan euskara ikasten ari diren mendaroarentzako beka sistema berri du Mendaroko Udalak. Hitzarmen horren arabera, Udalak matrikularen erdia ordainduko die ikasleei, beti ere aurrekontuan gai honetarako zehazten den kopurua gainditzen ez den bitartean.

Diru laguntza hori jasotzeko, hala ere, ikasleek hainbat baldintza bete beharko dituzte. Hala, ezinbestekoa izango da Mendaron errolatuta egotea, eta Udalarekin zorrik ez izatea; hau da, zerga guztiak ezarritako epe barruan ordainduta izatea. Diru laguntza horiek jasotzeko, bestalde, ikasleak hiru dokumentu aurkeztu beharko ditu udaletxean, ikastaroa amaitu eta hamabost eguneko epean: diru laguntzetarako eskaera orria, irailetik abuztura bitartean euskaltegiren batean euskara ikasten jardun duela egiaztatzen duen agiria, eta gutxienez eskolen %80ra joan dela egiaztatzen duen idatzia. Informazio gehiagorako: [www.mendaro.net](http://www.mendaro.net) edo 943 033 282.

**TELLABIDE**  
ITURGINTZA

Berogailuak  
Gasa  
Aire egokitasun  
Erregai likidoak



Azpilgoeta 7 behea - Mendaro  
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062

# IKER IZETA

Alkorta taldeko jokalaria

Igoera fasea jokatu ahal izateko partida garrantzitsua irabazi zuen Alkorta taldeak joan zen astean Donibaneren kontra, baina beste garaipen bat behar dute elgoibartarrek igoera faserako sailkatzeko. Hiru partida falta dira liga amaitzeko, eta elgoibartarrak hirugarren postuan daude, liderrarengandik sei puntura. Oraindik sei puntu daude jokoan, eta zaila izango den arren, matematikoki badute liga irabazteko aukera.

**“Asteburu honetan irabazten badugu, igoera faserako sailkatuko gara”**



**Partida garrantzitsua irabazi zenuten joan zen astean.**

Bai, partida ona jokatu genuen Donibaneren kontra, eta 33-24 irabazi genuen. Laugarren postuan zeuden, gure atzetik bi puntura, eta garaipen horrekin lau puntura urrundu ditugu. Ereintza taldekoak daude orain gure atzetik, eta asteburu honetan euren kontra jokatuko dugu. Hiru puntuko aldea daukagu, eta irabaziz gero, bost puntura jarriko lirateke. Asteburu honetan irabazten badugu, igoera faserako sailkatuko gara, lehenengo hiru sailkatuek jokatzen dute-eta. Iaz igoera fasea jokatu genuen, baina oso luzea egiten da, eta zaila da mailaz igotzea.

**Nolako denboraldia izan da aurtengoa?**

Puntu batzuk ihes egin digute. Lau partida puntu bakarreko aldeaz galdu ditugu, baina hala eta guztiz ere, goiko postuetan gaude, igoera faserako borrokan. Liderra sei puntura daukagu, eta liga irabaztea oso zaila izango da, baina denboraldia oso ona izan dela esan daiteke.

**Noiz eta nola hasi zinen eskubaloian jokatzen?**

Kadeteetan hasi nintzen, 14 urterekin, eta aurtengoa nire zazpigarren denboraldia da. Futbolean jokatzen hasi nintzen lehenengo, baina asteburuetan eskubaloia ikustera joaten ginen, eta gustatzen zitzaidan kiroldegian sortzen zen giroa. Eskola Kirolean ere jokatzen genuen eskubaloian, eta Gipuzkoako txapelketara iritsi ginen. Orduan futbola laga, eta Sanlon jokatzen hasi nintzen.

**Jokalariaz gain, entrenatzailea ere bazara, ezta?**

Bai, hiru urte daramatzat infantilak entrenatzen. Iazko denboraldian laguntzaile lanetan jardun nuen, ikasketak zirela-eta ezin nuelako

entrenamendu guztietan egon, baina aurtan ni naiz lehenengo entrenatzailea. Laguntzeko asmoz hasi nintzen, baina entrenatzaileak falta ziren, eta neuk hartu nuen taldea. Klubaren lanik zailenetakoa entrenatzaileak aurkitzea izaten da.

**Jokatzea ala entrenatzea gustatzen zaizu gehiago?**

Jokatzea errazagoa da. Nahiago dut aginduak jasotzea, aginduak ematea baino. Infantilek 13-14 urte dituzte, eta adin horretakoekin lan egitea ez da erraza.

**Jokatu, entrenatu eta ikasi. Nondik ateratzen duzu denbora?**

Ondo antolatzea da kontua. Goizez izaten ditut klaseak, eta arratsaldeak eskubaloari eskaintzen dizkiot. Nire entrenamenduak eta umeenak egun berdinetan izaten direnez, astean bi egun libre edukitzen ditut. Bestalde, umeen partidak zapatu goizetan izaten dira, eta gureak arratsaldean, beraz, domeka ere libratu egiten dut. Denbora asko kentzen dit, baina gustura nabil.

**Nola ikusten duzu eskubaloia eratorritikun Elgoibarren?**

Ondo. Lehen ume guztiak futbolean jokatzen joaten ziren, baina orain parekatzen ari da, eta ume askoren lehen aukera eskubaloia izaten da. Taldeetan, gainera, oso giro ona dago, eta aurrera egiteko aukerak ere ematen ditu eskubaloiak. Unai Arrieta eta Gorka Garrate profesionaletan dabilta, eta Zumaiako Pulpo taldean ere elgoibartar asko daude. Bestalde, errazagoa da eskubaloiko selekzioan jokatzea futboleko baino, eta horrek jendea animatzen du. Profesionalki bizitzeko futbolak aukera gehiago ematen ditu, baina iristea zailagoa dela iruditzen zait. Hala ere, eskubaloian profesional-tara iritsi arren, bertatik bizitzea ez da erraza.

# Espainiako judo txapelketa jokatuko du Egoitz Morak

Bi aste barru jokatuko du txapelketa, Madrilen

**E**goitz Mora elgoibartarrak Espainiako judo txapelketa jokatuko du seniorretan. Otsailaren 20an lortu zuen Morak Espainiako txapelketarako sailkapena. Egun horretan iparraldeko sektoreko txapelketa jokatu zuten Iruñeko Mendigorria kiroldegian, eta elgoibartarrak Nafarroako eta Aragiako txapeldunei irabazi zien, lau borrokalditan. Espainiako txapelketa bi aste barru jokatuko du, Madrilen.



## Denboraldiko lehen proba irabazi du Julia Agirrek

Julia Agirre gazteak joan zen domekan hasi zuen aurtengo denboraldia, eta Olaberriako zirkuitoan berak irabazi zuen. Hortaz, Euskadiko Txapelketan lehen postuan dago pilotu mendaroarra. Hurrengo lasterketa Villarcayon (Burgos) jokatuko du, martxoaren 20an.

## Ikastaro berriak jarriko dituzte martxan Olaizaga kiroldegian

Olaizaga kiroldegian ikastaro eskaintza zabalduko dute martxorako, eta ikastaro berriak jarriko dituzte martxan. Besteak beste, aeroboxing, GAP, tonifikazio muskularra eta pilates saio berriak estreinatuko dituzte. Patronatuak jakinarazi du bi ikastaro edo gehiagotan dabiltzan herritarrek lagun bat gonbidatzeko aukera izango dutela martxoko ikastaroren batera, doan. Bestalde, kardio gelan 42 pulgadako telebista eta bi eliptika berri jarriko dituzte.

## Felix Conde elgoibartarrak Euskadiko Pilota Txapelketako finala jokatuko du kadeteetan

Felix Conde pilotari elgoibartarrak Euskadiko Pilota Txapelketako finala jokatuko du kadeteetan. Binakako txapelketan hartuko du parte, Xanet Imaz Segurako atzelariarekin, eta Iruetagoiena eta Mujika izango dituzte aurrez aurre. Elgoibarko pilotariak Segurako taldean jokatzen dihardu aurtengo denboraldian, eta finalerako sailkatzea lortu du. Partida bihar izango da, lurretako pilotalekuan, 17:00etatik aurrera.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Haundi **3** – Baskonia **3** (3. maila)  
Elgoibar **2** – Getariako keta **2** (Erreg. Pref.)  
Allerru **2** – Elgoibar **2** (Ohorezko jub.)  
Elgoibar **6** – Allerru **1** (Kad. A)  
Ikasberri **6** – Elgoibar **2** (Kad. B)  
Zarautz **6** – Elgoibar **1** (Ohorezko inf.)  
Elgoibar **2** – Kostkas **2** (Inf. txiki)

### PILOTA

#### Udaberri Txapelketa

Lagunak **22** – Eskoriatza **20** (1. mailako nag.)  
Lagunak **20** – Murumendi **22** (1. mailako nag.)  
Lagunak **22** – Bergara **16** (1. mailako nag.)  
Azkoitia **22** – Lagunak **19** (2. mailako nag.)  
**Pala**  
Lagunak **25** – Loiolatarra **18** (2. mailako nag.)  
Lagunak **25** – Alde Zaharra **19** (2. mailako nag.)

### ARETO FUTBOLA

Concepto Createch Elg. **5** – Aldaz **1** (1. maila)  
King Kong Elg. **16** – Aloña Mendi **0** (Jub.)

### XAKEA

Mekatar Elg. **3** – Billabona **1**

### ESKUBALOIA

Alkorta Elg. **33** – Donibane **24** (Sen. mut.)  
Urola **30** – Beristain Elg. **29** (Jub. mut.)  
Txariduna Elg. **33** – Aloña Mendi **32** (Kad. mut.)  
IMH Elg. **16** – Ereintza **16** (Kad. neska.)  
Bankoa Elg. **20** – Pulpo **45** (Inf. mut.)  
Urola **12** – Aterpe Elg. **13** (Inf. mut.)  
Astigarraga Elg. **19** – Aiala A **26** (Inf. neska.)  
Legazpi **8** – Elgoibar **5** (Aleb. neska.)

## AGENDA

### FUTBOLA (Mintxetan)

**Zapatua, 26**  
**13:00** Elgoibar – Arrasate (Ohorezko inf.)  
**16:30** Elgoibar – Añorga (Kad. A)  
**Domeka, 27**  
**12:00** Elgoibar – Aretxabaleta (Aleb.)

### ESKUBALOIA (Kiroldegian)

**Zapatua, 26**  
**10:15** Aterpe Elg. – Pulpo (Inf. mut.)  
**11:30** Ikus Elg. – Leizaran (Inf. neska.)  
**16:00** Beristain Elg. – Zarautz (Jub. mut.)  
**17:30** Grupo Eibar Elg. – San Adrian (Jub. neska.)  
**19:00** Tecnifuelle Elg. – IES construccion (Sen. neska.)  
**Domeka, 27**  
**10:00** Elgoibar – Bergara (Benj. mut.)  
**11:30** Elgoibar – Bergara (Aleb. mut.)

### PILOTA

**Barbakua, 25**  
**21:15** Lagunak – Murumendi (1. mailako nag.)  
**22:00** Lagunak – Oskarbi (2. mailako nag.)

# Elgoibarrek hamazazpigarren postua lortu du Udalen hizkuntza politikari buruz Kontseiluak egindako neurketan

113 herritan egin dute azterketa, eta Elgoibarrek 6,94 nota eskuratu du

**E**uskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak Udalen hizkuntza politikak neurtu ditu. 113 herritan egin dute neurketa, eta Elgoibarko Udalak 17. postua eskuratu du, 6,94 notarekin. Kontseiluak argitaratutako zerrendaren arabera, hamasei Udalek gainditu dute neurketa. Izan ere, Kontseiluaren sailkapenaren arabera, zazpi puntu eskuratzekak adierazten du euskara lehenesteko udalek egiten duten ahalegina. Elgoibarko Udalak, hortaz, gutxigatik, baina ez du gainditu. Puntu gehien lortu dituzten Udalak, Bermeo, Orio eta Azpeitia izan dira hurrenez hurren.

Kontseiluak 2006an egin zuen es-treinakoz udalen hizkuntza politikaren neurketa, 66 udalerritan. Orduan 5,8 no-

RAN KINA	HERRIA	NOTA	KALIFI KAZIOA	ALDERDIA	EZAGUTZA TASA	EREMU JURIDIKOA
1	BERMEO	9,3209	OSO ONGI	EAJ	90,6	Ofizala
2	ORIO	8,7745	OSO ONGI	EAJ	92,4	Ofizala
3	AZPEITIA	8,6925	OSO ONGI	EAJ	94,8	Ofizala
4	LEKEITIO	8,6387	OSO ONGI	EAJ	96,1	Ofizala
5	ONATI	8,413	OSO ONGI	EAJ	90,1	Ofizala
6	ZARAUTZ	8,2457	OSO ONGI	Hamaikabat	86,4	Ofizala
7	ONDARROA	8,1692	OSO ONGI	EAJ	98	Ofizala
8	BEASAIN	8,1	OSO ONGI	EAJ	77	Ofizala
9	ARRASATE	8,0219	OSO ONGI	EAE-ANV	73,6	Ofizala
10	BERGARA	7,8981	ONGI	EAE-ANV	84,4	Ofizala
11	AZKOITIA	7,872	ONGI	EAJ	90,7	Ofizala
12	GERNIKA-LAJMO	7,8907	ONGI	EA	86,6	Ofizala
13	TOLOSA	7,4127	ONGI	EAJ	85,8	Ofizala
14	HERNANI	7,3978	ONGI	EAE-ANV	74	Ofizala
15	SORALUZE	7,1732	ONGI	EAE-ANV	76,7	Ofizala
16	HONDARRIBIA	7,1258	ONGI	EAJ	78,8	Ofizala
17	ELGOIBAR	6,9456	EZ NAHIKO	EAJ	73,8	Ofizala

ta atera zuen Elgoibarrek, eta hamargarren postuan sailkatu zen.

Neurketari buruzko txostena osorik irakurtzeko: [www.elgoibarren.net](http://www.elgoibarren.net).

## Mozorro lehiaketako epaimahaia herritarrek osatzea nahi du Atxutxiamaikak



Atxutxiamaikak mozorro lehiaketa antolatu du martxoaren 5erako, eta aurtengo berrikuntza epaimahaiaren osaketan egongo da. Aurreko edizioetan elkarre desberdinetako kideek osatu izan dute epaimahaia, baina aurtengo epaimahaia herritarrek osatzea nahi du Atxutxiamaikak. Hortaz, mozorro lehiaketako epaimahaia osatzeko interesa dutenek 943 741 626 telefonora deitu edo [atxutxiamai@el-](mailto:atxutxiamai@el-)

[goibarkoizarra.com](http://goibarkoizarra.com) helbidera idatzi dezakete. Mozorro lehiaketa 23:00etan hasiko da Madalako parkean, eta bakarka nahiz taldeka parte hartu ahal izango da. Sari banaketa 2:00ak aldera egingo dute. Talde irabazleak 275 euro jasoko ditu; bigarrenak, 175 euro eta hirugarrenak, 125 euro. Bakarkakoetan 125 euroko bi sari banatuko dituzte.

Etxeko txikientzako, bestalde, atxutxikaraoketa eta mozorro desfilea antolatu ditu Elgoibarko Izarrako aisialdi taldeak. 17:00etan hasiko dira ekitaldiak, Plaza Handian, zapatuan bertan. Karaokeko sariak parte hartzaile guztien artean zozketatuko dituzte, eta mozorro desfilean parte hartzen duten guztiek inauteriekin lotutako opariren bat jasoko dute.

Ekitaldi horiei buruzko informazio gehiago eskuratzeko 943 741 626 telefonora deitu behar da (Naiara).

## Iñaki San Martinen sokadantzari buruzko erakusketa, Altsasun

Iñaki San Martin 'Soarte' elgoibartarrak sokadantzari buruzko erakusketa jarriko du ikusgai Altsasuko lortia kulturgunean, martxoaren 2tik 26ra. Haritz dantza taldeak abuztuaren 24an egiten du urtero egiten duen sokadantzako erretratuekin osatu zuen Soartek erakusketa 2009an. 35 argazki inguruk osatzen dute bilduma.





30 urte pasatu dira Tejerok estatu kolpea emateko saiakera egin zuenetik.

## Nola gogoratzen duzu Tejeroren estatu kolpe ahalegina?



**Beatriz Zendoia**  
73 urte, etxekoandrea

Etxean nengoela gogoratzen dut, eta telebistaz eman zituzten Madrilgo irudi haiek. Politiko guztiak euren jarlekuetan eserita zeuden, eta Tejero pistolarekin sartu zenean denak desagertu ziren. Kezka apur bat sentitu genuen, nahiko itxura txarra hartu geniolako kontu hari.



**Pedro Mari Arriola**  
80 urte, jubilatua

Goizean goizetik irratia entzuteko ohitura daukat, eta irratiz jaso nuen albistea. Gero telebista jarri nuen, eta hantxe ikusi nituen irudiak. Urruti samar senititzen genuen, baina eskerrak gaizki irten zitzaiola. Tejerok irabazi balu denok aurretik eramango gintuen.



**Pascual Molina**  
65 urte, jubilatua

UGT sindikatuaren lokalean harrapatu ninduen albisteak. Pista Beltzean zegoen lokala, Guardia Zibilek lokaletik oso gertu, eta nik badaezpada, handik alde egin nuen. Gurasoei eta aiton-amonei entzundakoak entzunda, oso kezkatuta bizi izan genuen hura.



**Antonio Palomo**  
54 urte, karrozaria

Madeiran nengoen oportretan, eta akaso bertan geratu beharko nuela ere pentsatu nuen! Ez, broma da, baina, eskerrak ez zuela estatu kolpeak aurrera egin! Urruti harrapatu ninduen, baina albisteak kezka eragin zigun. Zorionez dena bere onera itzuli zen, eta hemen jarraitzen dugu.

### ESKERTZA

## SEBASTIAN BELLOTA MARTINEZ



2011ko otsailaren 10ean hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



### I. URTEURRENA

## DOMINICA OLAZABAL ARAMBERRI



2010eko otsailaren 25ean hil zen.  
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, otsailak 27,  
eguerdiko 12:00etan Mendaroko Garagartzako eliz parrokian.  
Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



### I. URTEURRENA

## INAXIO AZPIAZU AZPIAZU



2010eko otsailaren 25ean hil zen.  
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, otsailak 26,  
arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren eliz parrokian.  
Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



“Etorkizuna  
inola ere ez  
dago bigarren  
sektorean”

# JAKOBA ERREKONDO

PAISAJISTA ETA INGENIARI AGRONOMOA

Naturarekin harremanean bizi da Jakoba Errekondo (Usurbil, 1961), eta astero-astero landareei buruzko zalantzak argitzen ditu Euskadi Irratiko *Landaberi* saioan. Horrez gain, Zeraingo garapen teknikaria ere bada, eta herri batek garatzeko dituen aukerakaztertzen ditu egunerokoan. Okil Beltzak taldeak gonbidatuta, ‘Entzun, eztabaidatu eta ikasi’ izeneko hitzaldia eskaini zuen astelehenean usurbildarrak Elgoibarren, eta Zeraingo eredu oinarri hartuta, herri txikiek garatzeko zer egin dezaketen azaldu zuen. Kultur Etxeko hitzaldi gela bete egin zen, eta Okil Beltzak taldekoak gustura agertu ziren herritarrek emandako erantzunarekin.

**Zeraingo garapen teknikaria zara, eta hango politika beste herrietan ere aplikatu daitekeela diozu. Baina, zertan datza Zeraingo garapen politika?**

Zeraingo politika herriaren filosofian oinarritzen da. Denok elkarrekin, alderdi politikorik gabe eta auzolanean heltzen diegu etorkizuneko erronkei. Herri baten garapena edo bizitza herritar guztien artean egiten da Zerainean. Talde desberdinak daude horretarako, eta bakoitzak bere lanak ditu: udaltxea, kultura, lurraldea, garapen sozio-ekonomikoa, iraunkortasuna... Horren inguruan, etorkizuna lantzen ari da herria, elkartuta.

**Alderdi politikoak tartean sartzen direnean posible da era horretako politika garatea?**

Herriaz hitz egitean, alderdi politikoek enbarazu besterik ez dute egiten. Politika orokorraz bakoitzak bere iritzia izan arren, herrira jaisten garenean, gure haurrak eskolara joateko autobus zerbitzua nola antolatu dugun edo gure seme-alabentzako zein lanpostu klase nahi ditugun erabakitzeke orduan, politikak ezer gutxi dauka esateko.

**“Herriaz hitz egitean alderdi politikoek enbarazu besterik ez dute egiten”**

**Elgoibar industriari oso lotuta egon izan da beti, eta jende askok herri baten garapena industriaren garapenarekin lotzen du. Zuk ordea, garapena lehen eta hirugarren sektoreetatik etorri behar dela diozu.**

Garapena industriari lotuta egon da, baina gaur egun ez dago, eta etorkizunean are eta gutxiago egongo da. Hortaz zenbat eta lehenago ohartu, errazago izango zaigu etorkizuna lantzea. Etorkizuna inola ere ez dago bigarren sektorean. Hori garbi ikusten du mundu guztiak. Lantegi asko kanpora joan dira, eta produktioa externalizatzen ari dira. Gure etorkizuna hirugarren, laugarren eta bosgarren sektorean oinarrituko da: diseinuan, enpresentzako zerbitzuan... Beste

era bateko jakinduria daukagu hemen, eta horri atera behar diogu etekina.

**Etorkizuna ingurumena dela diozu. Zer esan nahi duzu horrek?**

Imajinatu erreminta makina diseinatzen duen pertsona bat. Ona baldin bada, lan asko izango du, eta lan asko baldin bada, aberatsa izango da, eta aberatsa baldin bada, ingurumen kalitate handiena duen lekua aukeratuko du bizitokizat. Osasun aldetik, janari ekologikoak dau den lekua aukeratuko du, eta hezkuntza aldetik, esaterako, zerbitzu onenak dau den lekua. Hori da gakoa.

**Ekonomia, garapena eta ingurumena nola lotu daitezke? Esate baterako, nola ikusten dituzu Abiadura Handiko Trenaren edo Pasaiako portuaren proiektuak?**

Handikeriaren ametsetan dabilzan politikari ezjakin batzuen politika da hori. Pasaiako super portuarena eta Gipuzkoan erraustegi bat eraiki nahi izatea astakeri ikaragarriak dira. Gure bizitza kalitatea munduko onena da izan beharrean gure marka, gure etorkizun guztia erreko duen erraustegi bat planteatzen ari dira. Kutsadura izugarria eta gaixotasunak ekarriko ditu, eta oro har, gure ingurumenaren kalitatea ikaragarri jaitsiko da. Hori ezjakina edo gaiztoa denak egiten du.

**Zeraingo garapen teknikari izateaz aparte, landareei buruzko saio bat daukazu Euskadi Irratian. Euskaldunok landare zaleak gara?**

Bai, dudarik gabe. 26 urte daramatzat asetero euskaldunon galderak erantzuten. Paisajista naiz, eta horra agronomiatik iritsi naiz. Landareak izugarri gustatzen zaizkit.

**Gure paisajeak begiraturaz, badirudi lorak lorontzi eta errotondetara mugatzen direla gaur egun. Zer diozu?**

Bai, baina hori hasiko da aldatzen. Orain arte garrantzitsuena pabilioiak, makinak eta torniloak ziren, baina hemendik aurrera beste gauza batzuk izango dira. Kaleei begiratura ere, orain dela hamabost urte jende gutxi esango luke gaur ditugun baratzak eta lorategiak izango genituela. Pixkanaka aldatzen ari da paisajea, eta gero eta azkarrago aldatuko da, badakigulako horrek balio handiagoa duela. Konbentzitura nago. Orain dela hogeitau urte janari ekologikoak hitz egiten genuenok eta produktu kimikoak ez erabiltzeko esaten genuenok astakeriak esaten genituela

iruditzen zitzaion jendeari, eta begira gaur egun noraino iritsi garen!

**Gaur egun ortu bat jarri duenari zein aholku emango zenioke?**

Gero eta aukera gehiago dago horretarako. Herri askotan sortzen ari dira aisialdi baratzak, eta ikastaroak asko ematen dira. Kontsumitzaileak ere kalitate bila gaitza, eta, Gipuzkoan dagoeneko 30 baserri talde baino gehiago daude.

**“Garapena industriari lotuta egon da, baina gaur egun ez dago”**

**Supermerkatuetan urte guztian dago tomatea. Badakigu zer jaten dugun?**

Jakin nahi duenak badaki, eta nahi ez duenak, ba ez. Kontzientzia norberaren arabekoa da. Hala ere, informazio gehiago eman beharko genuke, eta nire ustez, sasoiari sasoikoa jatea da onena. Hortik has ten da osasuna, jaten duguna gara.

**Zure hitzaldietan egiten duzun galdera bat: zertan bereizten dira landareak eta animaliak?**

Ezertan ere ez, berdin berdina gara. Animalia gehienak, asko edo gutxi bada ere, mugitu egiten gara, eta landareak oso gutxi mugitzen dira, edo ez dira mugitzen. Baina animaliak bezala bizirik daude, pentsatu egiten dute, erabakiak hartzen dituzte, etorkizuna planifikatzen dute... Askotan pertsonak baino kontzientzia gehiago dute. Jende askok pentsatzen du landareak baino gehiago garela, baina hori ez da zuzena. Jende askok ez du haragirik jaten, animaliak hiltzearen kontra dagoelako, baina letxuga bat jatean ere, letxuga hori ere hil egiten da. Kontua da osasun aldetik zer den hobea, letxuga bat hiltzea edo animalia bat hiltzea. Azken batean, landareek eta animaliek tratatu berbera merezi dute, nik behintzat ez ditut bereizten.

**LANA**

**ESKAERA**

- Emakume euskalduna adineko emakumeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **626 490 986**
- Neska garbiketa lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko prest. Edozein ordutan. ☎ **699 813 826**
- Emakumea edozein lanetarako prest. ☎ **943 033 908**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **636 517 025**
- Neska edozein lan egiteko prest. Interna edo orduka. ☎ **681 212 449**
- Tornugilea lanerako prest. CNC tornuetan 25 urteko esperientzia. ☎ **609 040 872 (Imanol Azpiazu)**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. ☎ **679 80 903**
- Esperientzia duen edo ama den emakumea behar da haurko bat zaintzeko. Zortzi orduko lanaldia. Goizez. ☎ **659 287 122 (arratsaldez deitu)**
- Emakumea sukalde laguntzaile, garbiketa lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko prest. ☎ **608 474 923**
- Neska gaztea nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Edozein ordutegi. ☎ **699 609 190**
- Neska gaztea nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Esperientziaduna. ☎ **678 972 694**
- Neska edozein lan egiteko prest. ☎ **634 007 292**
- Neska gaztea nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Asteburuetan ere bai. ☎ **646 821 678**
- Emakume euskalduna adineko pertsonak zaintzeko prest. Erizain laguntzailea, esperientziaduna. Arratsaldez edo pare bat orduz. ☎ **685 729 790**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak eta umeak zaintzeko prest. Gauez edo egunez. ☎ **685 212 060**
- Gizona txofer edo igeltsero lanak egiteko prest. Esperientzia daukat. ☎ **671 343 612 / 943 531 931**
- Neska eskaintzen da garbiketa lanak egiteko, tabernan platerak garbitzeko edo sukaldean laguntzeko. Nagusiak ere zainduko lituzke. ☎ **671 343 612 / 943 531 931**

- Neska eskaintzen da adinekoak nahiz haurrak zaintzeko, garbiketa lanetarako edo dendan lan egiteko. ☎ **662 267 569**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Interna edo orduka. ☎ **650 152 866**
- Neska gaztea nagusiak zaintzeko prest. Interna edo orduka. ☎ **634 042 115**
- Neska asteburuetan lan egiteko prest. Garbiketa lanak egin edo adinekoak zaintzen egingo nuke lan. ☎ **618 163 061**
- Neska gaztea edozein lan egiteko prest. ☎ **606 226 827**
- Neska eskaintzen da lanerako. Edozein lan egiteko prest. Ordutegi malgua. ☎ **646 977 562**
- Neska gaztea garbiketa lanak egin edo nagusiak eta umeak zaintzeko prest. Orduka edo interna moduan. ☎ **686 234 612**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. Egun erdiz edo orduka. ☎ **698 390 818**

**ESKAITZA**

- Neska behar da zapatuetan zerbitzari lanak egiteko. Esperientziaduna. ☎ **666 579 609**

**ETXEBIZITZAK**

**ALOKAIRUA ETA SALMENTA**

- Seme-alabarik gabeko boliviar bikoteak etxea hartuko luke alokairuan. Altzariekin, logela bakarrekoa edo bikoa. ☎ **645 555 265**
- Apartamentua salgai Sabiñanigon, Jacatik hamar minutura. 35m2, trastelekua eta terraza. Altzariekin, eguzkitsua. ☎ **696 272 311**
- Etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ **685 212 060**
- Bi edo hiru logelatako etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **652 446 228**
- Pisu bila nabil Elgoibarren. ☎ **608 474 923**
- Etxea salgai Mendaron. Hiru logela, sukalde-jangela, komuna eta balkoi handia. ☎ **943 033 493 / 628 033 993**
- Etxea edo logela hartuko nuke alokairuan. ☎ **664 705 888**

- Etxea salgai Elgoibarren. Hiru logela, sukalde, komuna eta egongela. Berritua, oso egoera onean. Prezio interesgarria. ☎ **688 658 183**

**PARTIKULARRAK**

- DBHko matematikako klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. ☎ **943 744 206**
- DBH titulua eskuratzeko eskola partikularrak behar ditut. Ingeles, gaztelera, euskara, matematika, fisika eta kimika klaseak jaso nahiko nituzke. ☎ **650 800 621**

**AUTOAK ETA GARAJEAK**

- Garaje itxia salgai Pista Beltzean. Prezio onean. ☎ **605 705 389**
- Garaje itxia alokatzen dut Jausoro Plazan, udaletxetik gertu. ☎ **672 422 237**
- Garaje marraduna alokatzen dut San Roke 5ean. ☎ **943 741 837**

**BESTELAKOAK**

- Patinete beltz bat galdu dut, lehoi berde baten irudia-rekin. Topatu duenak, mesedez, BARRENERA eraman dezala.
- Urezko kate bat aurkitu dut, eta Udaltzaingoa laga dut.
- 60 urtekoen bazkaria maiatzaren 28an. Interesatuak 20 euroko bermea sartu behar dute ondorengo kontu korronte zenbaki honetan: 3035 25 00071121796. ☎ **943 740 779 (Mari Karmen)**
- Bikotearentzako ohea erosiko nuke, somierra eta koltxoia. ☎ **697 282 539**

ESKERTZA

**JOSE AMUATEGI ARIZAGA**



2011ko otsailaren 23an hil zen. Haren oroimenez meza izango da, domekan, otsailak 27, goizeko 11:30ean Elgoibarko Bartolome deunaren eliz parrokian. Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.




ESKERTZA

**ANTONIO ZUBIAURRE JAUREGI**



2011ko otsailaren 21ean hil zen, 78 urte zituela. Familiaren izenean, eskerrik beroena gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.





• Zorionak, **Nikole**, zure lehen urtebetetzean. Muxu bat Elgoibarko familiakoen partez. Aupa Gipuzkoa eta Bizkaia! Ondo pasa!



• Zorionak, **Pablol** Egun polita igaro dezazula! Guraso, aittitta-amama, osaba-izeba eta lagunen partez. Muxu bat!



• Zure urteetan itzali argi guztiak eta piztu kandelak! Zorionak, **Luken**.



• Zorionak, **Goiatz**, zure 8. urtebetetzean. Muxu bat familiakoen, eta bereziki Udanereren partez.



• Zorionak, **Leirel** Muxu handi bat etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Andrey**, gaur 5 urte egin dituzulako. Gurasoen partez.



• Zorionak, **Aiora**, zure 4. urtebetetzean. Ondo pasa, etxeko eta Ihintzaren partez.



• Zorionak, **Duna**, bihar 4 urte egingo dituzulako. Aittitta Jose eta amama Carmenen partez.




• Zorionak, **Jonel** Zazpi muxu handi aitaxo, amatxo eta Enekoren partez.



• Zorionak, **Idola**, atzoko partez! Gaur ondo ospatzeko asmuakin gaiz! Patxuak.




• Zorionak gure panpinari, atzo 4 urte bete zituelako. Muxu handi bat gurasoen eta aittitta-amama Lurdes eta Manuelen partez.




• Zorionak, **Asier**, hilarren 18an zure urtebetetzea izan zelako. Amaren etxeko eta lagunaren partez.



• Bidea ibilian egiten da, eta nortasuna egunetia egunera. 9 urte bete dituzu eta denok oso pozik gaude. Zorionak, **Mikel**



• Zorionak, **Naia**! azkenian iritsi da 4 urtiak ospatzeko eguna! Patxo bat familixakuen, eta bereziki, Julenen partez!



• Zorionak, **Joseba**, bihar 5 urte egingo dituzulako. Muxu bat familiakoen eta bereziki, Elenen partez. **Ainhua**, zorionak, zuri ere.



• Gure etxeko txikiak 3 urte egin ditu! Zorionak, **Mikell** Muxu handi bat familiakoen, eta bereziki, Alexen partez.



• Zorionak, **bikotel** 60 urte ezkontuta, elkarri lagunduz eta maitatuz. Patxo bana, eta, eskerrik asko!



• Zorionak, **Yaiza, Udane eta Adur**, 11, 4 eta 9 urte egin dituzuelako. Familiakoen partez.



• Zorionak, **Oinatz**, zure lehen urtebetetzean! Familiakoen partez.

**Erretratu bakarrekoko agurra: 3 euro. Argazki bikoitza: 5 euro. Hirukoitza: 7 euro. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 euro.** Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu. **BARRE**Neko bulegora 12:00ak baino lehen, edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali.

**II. URTEURRENA**

**MARI CRUZ BELAUSTEGUI ZUAZO**

2009ko otsailaren 27an hil zen, 44 urte zituela.

Haren oroimenez II. urteurrenko meza izango da, zapatuan, otsailak 26, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren eliz parrokiari.

Joango zaretenoi eskerrak aldeztatik.




## 26 zapatua

### Jaiak

18:00 Aingeru Guardako jaien hasiera

Mendaroko Aingeru Guardako jaien hasiera ofiziala. Arbola sartzea eta kanpai jotzea.

### Festa

21:00 **Barrikotea**

Kimetz elkartean. Tiketak salgai daude Jai Alai, Lanbroa eta Iturri tabernetan 20 eurotan.

## 1 martitzena

### Jaiak

8:00 eta 11:00 Meza

Aingeru Guardako jaien barruan mezak izango dira Aingeru Guardako ermitan.

## 3 eguna

### Kultura

18:00 Ilunabar literarioa

Kultur Etxeko hitzaldi gelan, Ekekeik antolatuta.

### Aurkezpena

19:00 Gemikako Akordioa

Kultur Etxean.

## 4 barixakua

### Erakusketa

19:00 'Emakumeak aurrera egiten badu, munduak ere bai'

Berdintasun Sailak antolatuta, Kultur Etxeko erakusketa gelan.

### Bertsosaiak

22:30 'Ez da kasualitatea'

Uxue Alberdi, Ainhoa Agirrezaldegi, Onintza Enbeita, Jone Uria eta Beñat Gaztelumendi bertsolariak. Berdintasun Sailak antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

### OKINDEGIA

27 domeka **IBARRENEA**

### FARMAZIAK (24 orduz)

- 25 Garitaonandia-Bidasolo
- 26 Etxeberria (Santa Ana)
- 27 Etxeberria (Santa Ana)
- 28 Fernandez
- 1 Yudego
- 2 Zabaleta
- 3 Etxeberria (Erosario)
- 4 Ibañez

**Fernandez** Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) - Tel: 943 756 142

**Ibañez** -Rekalde, 1 (Soraluze) Tel: 943 751 638

**Zabaleta** Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

### ZINEA

#### «Camino a la libertad»

25, barixakua: 22:15

26, zapatua: 19:00/22:15

27, domeka: 19:00

28, astelehena: 21:30

#### «Los viajes de Gulliver»

27, domeka: 16:30

#### «Miel»

(Ongarri zinekluba)

3, eguna: 21:30



### Larunbat honetan, PINTXO LEHIAKETA.

Izenematea bihar 17:30ean amaituko da. Parte hartzaileen pintxoekin afari-merienda egingo dugu



Martxoaren 4an **MOZORRO FESTA** bikaina, 17:00etan hasita. Mozorro lehiaketa, merendola eta jolasak. Animatu eta parte hartu!!"

### II. URTEURRENA

## BORJA UZURIAGA MENDIZABAL



2009ko martxoaren 1ean hil zen, 25 urte zituela.

*Oroituko zaitugu betiko  
begirada goxodun mutiko  
zure oroimena galtzen  
ez dugu sekula utziko*

Zure lagunak



*ikasi eta lan, guk biak  
egiten ditugu!*

**Ate irekiak**

**MARTXOAK 5  
(11:00etan)**

# Inauteriak 2011

17:00etan: ATxUTxIKARAOKEA

18:30ean mozorro desfile

ETA KOREOGRAFIAK (16 URTERO ARTE)

# Plaza handian

Antolatzailea:



Babeslea:



Lasurtzaileak:

